

blai

XIRIMIRI Gazte Taldeko aldizkaria



**"Salbatzailea,
emakumeagandik jaioa
etorri zaigu" (Gal. 4:4)**

**La Navidad,
una llamada a
respetar y agradecer
a la mujer.**

Elvira Sotillo

aurkibidea

tantaz tanta.....	1
bidaidea.....	2
inkesta.....	3
kronika.....	4
erreportai.....	5
taldez talde.....	7
gabonak zuretzat.....	9
elkarrizketa.....	11
erreportai.....	13
auzoa.....	15
musika.....	16
denbora pasak.....	17
kakuxen txokoa.....	19

tantaz tanta

editoriala

Nahiz eta urte guztian izan behar genukeen onak, behintzat hautxek dira urteko egun solidarionak. Eta gainera, jai goxo hauek izaten dira denonak, seme-alaba, aita ta ama aitona eta amonak. Guzti hoientzat **XIRIMIRI**tik datoz Zuretzat Gabonak.

bidaiidea

ahateak egan

inkesta

zer ospatzen duzu zuk gabonetan?

Ikusi al dituzue inoiz ahateak hegan?
 V izkiaren antzera egiten dute hegan.

Zientziak esaten digu halako itxura hartzen dutela hegoen azpian haizearen indarrak eusten dielako lehenengo ahatearen atzean hegan egiten dutenei. V moduan jarriz luzeago eta errazago egiten dute hegan, indarrak aprobetxatuz. Noizbait ahateren bat lerrotik ateraz gero, haizearen indarrak estu bultzatzen dio taldearen hegaldira itzultzeko.

Muturrean dagoena nekatzen denean, bere tokia utzi eta beste batek hartzen du taldeko burua, taldekoek behar dutenean atseden har dezaten.

Atzean doazen ahateek karranka egiten diete aurrekoiei animuak emateko, abiadura eutsi dezaten.

Eta ahateren bat gaixorik bada, bi lagunek laguntzen diote babesa aurki dezan. Hegaz jarraitu arte edota hil arte bere ondoan izaten ditu. Une horretan berriro taldera itzultzen dira.

Gure taldean, gure familian, **XIRIMIRI**... konpartitzen dugunean eta elkarri laguntzen diogunean ahateen antzera aurrera egiten dugu. Elkarrekin hegan egitea errazagoa gertatzen da bakarka eginda baino. Norbaitek alde egin nahi badu, bakarka aurrera egitea malkarra gertatzen zaio. Gainera ahateak bezala geuk ere aurrera egiten dugu bizitzari helburu bat jartzen diogunean.

Ahateak bezala hegan egingo bagenu...



Ainhoa Garin
 Olentzero etortzen dela



Oihane Agirre
 Eguberria, Gabon gaua, Urte Berria eta Urte Zaharra



Maider Blanco
 familiarekin bildu eta kartetan dirua irabaztea



Iker Peña
 familiarekin ospatzen diren egun bereziak



Edurne Bakeriza
 haurren ilusioa



Julen Rodrigez
 Jaungoikoaren semearen etorrera, oporrak, opariak, janaria



Kakux Mendizabal
 maite ditutenekin akordeoia jotzeko aukera (Jauai)



Eneko Agirre
 txuleta jateko aukera (egunero bezala alperrana egitea)



Nerea Huegun
 Iñakirekin egun erromantikoak



Opa Rodrigez
 familia elkartzea

kronika

joan den Udako ekintzak



MuzKi' o4 AsTialDia

Aupa Muzki, zer moduz?

Faltan botatzen zaitugu, oso ondo pasa baikenuen Muzkin. Udan oso ongi pasa genuen gure arteko harremanak estutuz. Jolas dibertigarri ugari egin genituen, horien artean: gynkana, linternen jolasa, sexu aldaketa tailerra, JONKORNER, hiru tximu jakintsuak... Ruta ere egin genuen eta zure inguruko herriak ezagutu: Zudaire, Lerate, Oilogoi, Etxarren... Rutari buruz, talde bakoitzak abesti eta kartela egin zuen.

Janaria nahiko ona zen, eta sukaldariak oso-oso jatorrak. Sukaldariek oso dantza polit, dibertigarri eta berezia asmatu zuten: "El Pollo". Kantak dantza ere bazuen.

Begirale bakoitzari izen orde bat jarri genion. Hona hemen batzuk: Felix: veo-veo, que ves, un cola-caio y quien lo ha tirau... empieza por la F. ¿quien sera, quien sera, quien sera?

Andoni: Estoy que lo regalo
Borja: Bonbon de licor
Buitri: Txuki
...



MuzKi' o4 KaTeKeSia

Uda polit batean XIRIMIRI Gazte Taldearekin udalekuetara joan ginen egun batzuk pasatzera. Iritsi ginenean jolasak egin eta pantanora joan ginen. Bertan igelak hartzen ibili ginen batzuk eta beste batzuk, berriz, tximeletak hiltzen. Ondoren denak bainatzera joan ginen.

Egun batzuk pasa ondoren bi egunetako ruta egin genuen. Hiru taldetan banatu ginen eta talde bakoitzak ruta desberdin bat egin zuen. Batzuk Jaitzera joan ziren, beste batzuk Argiñanora eta azkeneko taldea Allozera joan zen. Azken talde honetan joan ginenok ez genuen ruta bakarrik egin; Moro izeneko txakur bat gurekin etorri zen eta gurutzurtoak ere handik zebiltzan.

Udalekuan zehar beste gauza asko ere egin genituen: igerilekura joan, ipuinak entzun (nahiz eta altabozetatik ez zen oso ondo entzuten), potxaskaoa bizkotxoekin jan eta jolas pila bat.



Muzkiko udalekua bukatu baino egun bat lehenago gure artean arropa aldatu behar izan genuen jolas batean eta Felixen edertasunak guztiz liluratu gintuen Korukoren arroparekin. Ondoren Eneko Agirre pitxarrazoan blai eginda utzi genuen baina azkenean denok berdin bukatu genuen pristikuan. Azkeneko gaubelan Noe bere animaliekin etorri zen Muzkira eta herrikoekin batera zezensuzkoan ibili ginen.



Azken egunean gurasoak etorri zitzaizkigun bila eta denok batera eukaristia ospatu eta paella bazkaldu genuen. Oso giro polita izan genuen udaleku osoan eta horregatik oso ondo pasa genuen.

XaKoBeo'04

2004ko uda honetan, uztaillaren 31ean hamabost gazte, Borja M^a eta Juan Kruz Mendizabal Santiago Bidea egitera joan ziren, Conferencia Episcopal Españolak antolatutako preroginaziora hain zuzen. Gure eginkizunak bi sailetan banatuak zeuden, bost eguneko ibilbidea eta Santiagoko egonaldia.

Ibilbideetako egitaraua beti berbera izan zen: goizeko 6etan jaiki, gure gauzak bildu, bi ordu beranduago gosaldu eta otoitz sakon bat entzun ondoren ibilbideari ekiten genion. Egunero eguerdi aldera iristen ginen. Bazkari txit nazkagarri baten ondoren, gu siesta bat egiten ari ginen bitartean beste 2583 pertsonak (guztira 2600 baiginen) mezetan pasatzen zituzten arratsaldeak. Gau aldera afaritxo txit iguingarria jan ondoren, pote bat hartzera joaten ginen. Ondoren, 12ak aldera, argiak itzaltzen zituzten guk lo egiteko eta hurrengo goizean gehiago ibiltzeko prest egoteko.



Hauxe zen gure eguneroko egitaraua. Santiagoko egitaraua, berriz, pixkat desberdina zen: goizeko zortziretan jaiki, gosaldu eta egun osoa libre genuen nahi genuen guztia egiteko, egia esan tailerren bat edo beste eta mezaren bat ere bagenituen tartean. Baina hauetara ez ginen joan. Gauetan Monte do Gozon kontzertuak zeuden. Baina hara igotzeko zeuden baliabide urriak zirela medio ezin izan genuen nahi genuen orduan bueltatu, organizazio faltagatik. Ondorioz taxiz bueltatu behar izan genuen, pulpoa jan ondoren.

Azkenik, abuztuak 8an etxera itzuli ginen. Beste taldeak baina egun bat lehenago Aste Nagusia hastear baitzegoen.

taldez talde

ikasturte hasieran

XIRIMIRI 1

Lehenengo bilera gutxi hauetan (bilerekin hasi ginen azken taldea gara), elkar ezagutzen eta **XIRIMIRI** ezagutzen hasi gara. Helburu hauekin, lehenengo bileretan altxorraren bila antzeko bat egin genuen eta baita *ezagutzing triviala* ere. **Gabonak Zuretzaten** ildoari jarraituz, munduko herrialdeen egoera jarraitzen saiatu gara. Horretarako Mundutxo jolasaz baliatuz. Eta konturatu gabe gabonak gainean ditugu.



XIRIMIRI 2

Ameriketako zientzilari ospetsuek duela zazpi urte burututako ikerketen ondorioz, **XIRIMIRI Gazte Taldea** osasunarentzat onuragarria dela ziurtatu dute. Onura hauek bigarren urtez jaso ditugu guk. Boni lagun hartuta hondartzan gure konfiantza lantzen jardun genuen. Gaintzako elkarbizitza ere itzela izan zen, mundiala. Bertan, ezagutzen genituen lagunekin eta ez genituenekin harremanak sakondu genituen. Aipatu beharrekoa da, han izan genuen eztabaidan guztiok parte hartu genuela, begiraleak barne.

Taldearen osagaiak: umorea, giro ona, laguntza... nahi adina kontsumitu daitezke, batez ere beharrezkoa dugulako. Arazo edo zalantzarik badaukazu, ostiralero etor zaitezke. FROGA EZAZU!



XIRIMI RI 3

Gizarteari buruz ari gara hitz egiten, gai ezberdinak landuz. Gure taldeko aniztasunari esker definizio ugari aurkitu dizkiogu, hala nola: gizartea munduan gertatzen diren gauzak direla ikasi dugu eta baita Katalan ugari daudela Donostian.



Gaintzako asteburuan trikiti festa paregabea topatu genuen ustezko Maixa ta Ixiarrekin. Soziedadean gaztaina batzuk uroneatzen saiatu eta gero, etxera itzuli ginen triste gaupasa egiteko asmoarekin, baina ez genuen aguantatu. Hori bai, Aitor

behar bezala animatu genuen: HAY UN TENISTA EN EUSKADI QUE VAL E UN MONTÓN: ¡AI-TOR-BUI-TRÓN!

XIRIMI RI 4.5

Aurten **XIRIMI RI 4** eta **5**ekook talde bakarra osatzen dugu eta jende berria ere sartu da taldean. Ikasturtea auzoaren gaia jolasen bidez landuz hasi dugu. Hasieran auzoaren ikuspegi orokorraz hitz egin genuen oka jolas antzeko baten bidez, baina ondoren, gauzak zehatz batzuen inguruan hausnartu dugu. Esate baterako, auzoan dauden arazoak eta horietan eragina duten pertsonak zein diren komentatu dugu eta arazo horiei irtenbideak aurkitzen ere saiatu gara. Beste batean, hitz baten inguruan burura zetorkigun lehen gauza bota behar genuen. Horrela gure artean giro ona sortu zen.

Orain arte egin duguna gustatu zaigu, batez ere jende asko ezagutu dugulako eta elkar hobeto ezagutu dugulako. Baina baita kakaueteak jan ditugulako ere. ON EGIN!

XIRIMI RI 6

Azkenean bai. Badirudi taldeak behar zuen seriotasuna hartu duela. Izan ere, aurtengo ikasturte honetan begiralez aldatu dugu eta honek taldearen dinamika aldatzea lortu du. Astero gelditu beharrean, bi astean behin gelditzen gara eta taldearen erantzuna oso ona izan da. Begiraleak ekarritako gaiak ondo joratu ditugu bileratan.

XIRIMI RI Gazte Taldeak honako egitaraua prestatu du Udalak koordinatutako Gabonak Zuretzat egitasmorako. Zuen gustokoa izango delakoan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Egitarauak bi zati ditu: haurrei zuzendua (iazko ludotekaren antzekoa) eta gazte-helduei zuzendua. Azken honetan zenbait argazki erakusketa eta hitzaldi antolatu ditugu aldamenean ikus dezakezuen kartelak adierazten duen bezala.

haurrentzako egitaraua

abendua 27: jolasak

iraupena: 10:30tatik 13:30ra
topalekua: San Bizente elizan
adinak: 8-12 urte bitarte
hizkuntza: euskara
azalpena: lehen ordubetean ezagutzeko eta esnatzeko zenbait jolas egingo ditugu. Ondoren **Ni arratoi** antzezlana ikustera joango gara Antzoki Zaharrera

abendua 28: tailerra

iraupena: 10:30tatik 13:30ra
topalekua: San Bizente elizan
adinak: 8-12 urte bitarte
hizkuntza: euskara
azalpena: hiru hemialde ezberdineako kulturari oinarrituz, mapan kokatu eta bertako ohitura eta erritoak ezagutzeko ditugu

abendua 30: ipuin tailerra

iraupena: 10:30tatik 13:30ra
topalekua: San Bizente elizan
adinak: 8-12 urte bitarte
hizkuntza: euskara
azalpena: berotzeko jolasak egin ondoren eta ipuin bat oinarri bezala hartuta, antzezpene bat egin beharko dute guk eskuratutako baliabideekin

abendua 31: PINera

iraupena: 10:30tatik 13:30ra
topalekua: San Bizente elizan
adinak: 8-12 urte bitarte
hizkuntza: euskara
prezioa: sarreraren kopurua
azalpena: iaz Kursaelean egin zen Gabonetako Haur Parkera joango gara tailer eta jolasetan parte hartzera

gabonak zuretzat

KOLONBIA:

hitzaldia: "Kolonbia: interesen korapiloa"
"Colombia: un nudo de intereses"

non: Biblioteca Dr. Camino liburutegia
noiz: abenduak 27 de Diciembre - 19:30

EKUATORE GINEA:

hitzaldia: "Itzaropenez beteriko begirada"
"Una mirada a la esperanza"

non: Biblioteca Dr. Camino liburutegia
noiz: abenduak 28 de Diciembre - 19:30

ARGAZKI ERAKUSKETA/EXPOSICIÓN DE FOTOS:

"Begiratu eta ikustearen arteko aldeak konprometitzen du" / "Entre ver y mirar, la diferencia compromete"

non: iglesia de SAN BIZENTE elizan
noiz: abenduaren 22tik urtarrilaren 5era
del 22 de diciembre al 5 de enero

SAHARA:

hitzaldia: "Mendebaldeko Sahara: Sahararren herria"
"Sahara Occidental: el país del pueblo saharauí"

non: Biblioteca Dr. Camino liburutegia
noiz: urtarrilak 3 de Enero - 19:30

PALESTINA:

hitzaldia: "Gure hitzez, gure begiz... Palestina"
(uda honetan hilabetez Palestinan egondako brigadista baten eskutik)

non: Biblioteca Dr. Camino liburutegia
noiz: abenduak 29 de Diciembre - 19:30

ARGAZKI ERAKUSKETA/EXPOSICIÓN DE FOTOS:

non: asociación KRESALA elkartearen
noiz: abenduaren 22tik urtarrilaren 5era
del 22 de diciembre al 5 de enero

EUSKAL HERRIA:

mehai ingurua: "Gazteok zubiak eraikiz: Euskal Herria orain eta hemen" / "Jóvenes construyendo puentes: Euskal Herria aquí y ahora"

non: Biblioteca Dr. Camino liburutegia
noiz: urtarrilak 4 de Enero - 19:30

INDIA:

hitzaldia: "Bi errealitate, bi konponbide; behartsuak Calcutan eta emakumeen sustapena"
"Dos realidades, dos soluciones; indigentes en Calcuta y promoción de la mujer"

non: Biblioteca Dr. Camino liburutegia
noiz: abenduak 30 de Diciembre - 19:30

BIDEZKO MERKATARITZA:

EXPOSICIÓN Y VENTA DE PRODUCTOS

"Bidezko Merkataritza eta Kanpo Zorrari Buruzko Erakusketa" / "Exposición sobre Comercio Justo y Deuda Externa"

non: San Bizente parrokian
noiz: abendua 23, 30 - urtarrila 4 • 5:00h. - 8:00h.

ARGAZKI ERAKUSKETA/EXPOSICIÓN DE FOTOS:

"Calcuta, begirada zabalik"
"Calcuta, la mirada abierta"

non: liburutegi nagusian biblioteca central (bajos del Ayuntamiento)
noiz: abenduaren 22tik urtarrilaren 5era

elkarriaketa

lore iturri



Zer da Akiba?

GKE (ONG) independente bat da. Parrokiarekin erlazio estua dugu, bertatik sortu baitzen hasiera batean. Gaur egun gainera, San Bizenteko lokaletan biltzen gara.

Zein da Akibaren egitekoa Batan?

Biltzen dugun dirua momentuko beharren arabera erabiltzen saiatzen gara. Momentu honetan proiektu bat aurrera eramaten ari gara. 20 etxe egin nahi ditugu bertakoentzat. Etxeak lortzeko baldintza hauek bete behar dituzte: eskolatik pasa, ladriloak beraiek egin behar dituzte, egurra moztuta eduki behar dute, bi langile jarri behar dituzte, eta Akibak etxea eraikitzeko bidaliko dituen 10 langileei jana eman behar diete obrak dirauen bitartean. Gainera etxebizitza hauek emakumearen izenean egongo dira gizonarekin arazorik izango balu etxerik gabe gera ez dadin.



Honez gain parrokiak urtero 3000€ko diru laguntza bidaltzen du. Diru hau behar dutenerako erabiltzen dute. Orain arte, eskolan jendea hezitzen dute, ondoren bere herrietan ikasitakoa zabal dezaten. Denetik ikasten dute, idazten, irakurtzen, komunak egiten, ura potabilizatzen eta batik bat katekesia.

Nolakoa da bizitza Batan?

Oso oso pobreak dira. Lotsagarria da dirua nola dagoen banatuta. Ekuatore Ginean Grezian adina diru dago, baina ez dute jatekorik. Diktadura bat da eta diru guztia oso gutxiren artean banatzen da; batez ere estatuak du diru guztia. Baliabide ugari dituzte, hala nola, petroleoa, mineralak eta egur ugari.

Hara sartzeko arazoak egon ohi dira, ez da posible bertara turista gisa sartzea, soilik misiolari moduan sar daiteke.

Herriko jendea basotik bizi da eta lurra lantzeaz. Eskolan lurra lantzen ikasten dute eta oso gazte hirira joaten dira lan bila. Zaila edukitzen dute lana bilatzea eta joaten diren neska gehienek prostituzioan bukatzen dute.

Eta bertako hizkuntza eta erlijioa?

Gaztelania erabiltzen dute gehienbat, bertako hizkuntzak galtzen ari dira. Erlijio nagusia kristautasuna da, ezin dugu ahaztu Espainiako influentzi handia dela kolonia bat izateagatik denbora askoan.

Zein da emakumearen papera?

Emakumearen etxeko lanetarako bizi da, ura eraman, etxea mantendu... Lehen esan dudan bezala, gure bitartez eginiko etxeetan garrantzitsua iruditu zaigu emakumeari garrantzia ematea, babes bat izan dezaten.



Eta bikote erlazioak?

Gizonak nahi dutena egiten dute, banantzeko aukera dute. Emakumeak ezin du ezer erabaki eta banantzen bada gizonak eramaten du dena. Oso berandu ezkontzen dira, lehendabizi elkarrekin bizitzen jartzen dira denbora luzez eta bikote batzuek ondoren ezkontzea erabakitzen dute.

Akiba auzoan ezagutarazteko asmorik bai?

Noski baietz. Orain hasiko gara auzoan ezagun egiten. Kartel eta triptiko berriak prestatu ditugu laster zuen esku egongo direnak. Bazkideak biltzeko kanpaina bat hastera goaz, ez diruagatik, baizik eta jendeak ezagutu, laguntza jaso eta ideiak bota ditzan (gauzak eskatzeko, herremintak kasu...)



erreportaiia

odon: nik ere parte hartu nahi dut!

Azken hauteskundeak jarraitu bezenituzten bazen Donostiako Udalera aurkeztu ziren alderdi guztiak beren programetan plazaratu zuten gai bat: partaidetza. Noski, batzuk besteak baino ausartagoak izan ziren eta beste batzuek ez zuten aipatu ere egin ia. Alderdi batzuentzako, partaidetza lau urtetan behin bozkatzera joatea da, horrela herritarrok nahikoa parte hartzen baitugu. Baina beste batzuentzat, salto bat eman beharra zegoen eta herritarroi Udaleko erabakietan parte hartze zuzenagoa eman: dirua zertan gastatzen den, nire kalean zuhaitzak nahi ditudan, hutsik dagoen eraikin horrek kiroldegia edo merkatal gunea izan behar duen...

Hala ere ez pentsa eztabaida hau berria denik. Demokraziari buruz idatzi duen autore askok galdetu diote bere buruari zein demokrazia mota izango den hobea. Batzuentzako (Rousseau, Stuart Mill, Tocqueville) gero hiritar gehiagok parte hartu, demokrazia orduan eta hobea zatekeen. Beste batzuentzako, herritarren ordezkariak parte hartzea da garrantzitsuena eta hauek hartu beharko lituzkete erabakiak (Schumpeter).

Gaur egun, hala ere, bienarteko nahasketa bat egiten da: ordezkariak aukeratzen ditugu eta erabakietan parte hartzen ere saiatzen gara, partaidetzaren kontzeptua hedatzen ari baita. Donostian, esate baterako, eta azken hauteskundearen ondoren, partaidetzarako mekanismo batzuk jarri dira martxan, hiritarrok ere zer esana izan dezagun hartzen diren erabakietan. Horietako bat aurrekontu partehartzaileena da, hau da, dirua zertan gastatuko den erabakitzearena. Emaitzak ez dira oraindik hobereenak izan, baina saiatzek behintzat merezi du.

Bigarrena guri tokatzen zaigu zuzenean. Gazteria Kontseilu bat sortu nahi du Udalak, guk geuk, gazteok ere ahotsa izan dezagun udal erabaki eta oinarrietan. **XIRIMIRI Gazte Talde** bezala parte hartu dugu lehen bileretan eta asmoa ona dela dirudi, nahiz eta 13-17 urtetako

gazteei bakarrik zuzenduta dagoen, eta apur bat eskasa iruditu. Hala ere gazteak hiritar gisa kontsideratzen hasi da Udala, bai gurekin lan egiteko momentuan, baita gure ahotsa entzuteko ere. Bada aurrera pauso bat. Hemendik aurrera horrelako foro gehiago zabalduko direlakoan gaude, eta ez hori bakarrik, bertan egin daitezkeenak asko izango direlakoan.

Baina zer edo zer eskatu beharko dugu. Gure auzoa hobetzea eskatu beharko dugu, eta gure hiriko ekipamenduak ere hobetu beharko dira. Baina zeintzuk dira gazte bezala ditugun kezka? eta 13 eta 17 urte bitarteko gazteek kezka berdinak al dituzte? Are gehiago, 22 urtetako gazte batek ez al luke parte hartzeko eskubidea izan behar? eta zer eskatuko zenukete zuek kontseilu horretara joango bazinate? etxebizitza? kiroldegia? gauerako plan alternatiboak? tabernak denbora gehiago irekitzea? agian ez zenukete ezer eskatuko. Ni, zalantzarik gabe, etxebizitzaren gaiarekin nahiko pelma izango nintzateke... baina momentu honetan ezin dut joan... Odon, nik ere parte hartu nahi dut!

Agian interesgarria da bi minututan pentsatzen jartzea: zer hobetuko nuke nik nire hirian aukera izango banu? orain aukera izateko ez da beharrezkoa politikaria izatea; poliki bada ere, bideak zabaltzen ari baitira. Pentsatu, eta bururatzen bazaizue, **XIRIMIRI**ko atea jo, eta guk Udalekoa joko dugu Kontseilura joateko. Badakizue, parte hartu. Han, hemen, Udalean, Jaurilaritzan, Aldundian, etxean, **XIRIMIRI**n, eskolan, ikastolan, institutoan, lizeoan, koadrilan... edonon partaidetza beti izango da positiboa.

Parte hartzea ez da hitz-egitea bakarrik. Parte hartzea ez da bilera batetara joan, zure ideiak eman eta beratik alde egitea. Parte hartzea hori baino zerbait gehiago da. Azken batean, Joan Font irakasle katalanak dioen bezala, partaidetza ez baita gaur egun diskurtso hutsa, demokrazia ibilarazteko modu bat baizik.

2020a

trinitate plaza

Azkenaldi honetan Trinitate Plazan eginiko aldaketak onura ekarri diote auzoari. Orain dela urte batzuk plaza hura zikina, erdi puskatua, droga saltzailez betea... zegoen. Hala ere, beste toki bat ezean, Orixe ikastolako ikasleek bertan igarotzen zituzten beraien soinketako orduak eta baita Parte Zaharreko kirolari guztiek ere.

Auzoko jendea ez zegoen ados plazaren egoerarekin eta ematen zitzaion erabilerarekin. Kexa horiek medio, udaletxeak neurri batzuk hartu ditu eta horien emaitza izan da Trinitate Plazaren berritzea. Aldaketa honetan frontoiaren berrikuntza, kanasta eta porteria berriak jartzea, lurra berritzea eta aldagelen berrikuntza izan dira, besteak beste. Dena dela, gehien arritu gaituena atek jarri izana da.

Trinitate Plaza auzoko pertsonen beharretara egokitzea da auzotarren helburuetako bat. Hori aurrera eramateko aurreko kurtsoan auzoko elkarte ugari bildu ziren "Trinitate Plaza Berreskuratzailearen alde"-ko eguna ospatzeko. Egun horretan ekitaldi desberdinak burutu ziren, horien artean: pilota partidak, haur jolasak, patata tortila txapelketa, dultzainero nahiz txistulariak, batukada... Momentu horietan Alde Zaharra kirol Elkarteak kirol eta kultur azpiegiturak beharrezko ikusten zituen eta Plazaren berritzearen garrantzia eta planteamentua Udalarai aurkeztu zizkion ia urtebete lehenago. Hala ere, aurtengo udara arte ez dute erantzunik izan. Aldaketa horien artean honakoak azpimarratzen ziren: frontoiaren handitzea, osorik edo zati batean estaltzea eta pisten neurriak araudietara egokitzea.

Aldarrikapen horiek erantzuna izan dute, zati batean bai behintzat. Guzti hau egin ondoren gaur egun arriskurik gabe egon daiteke bertan, nahiz kirola egin nahiz arratsalde pasa egoteko aukera baitugu. Horregatik orain gure txanda da. Eman diguten aukera on hau aprobeztatu eta zaindu beharra daukagu, jarritako mugak errespetatuz.

musika

no name

No name Donostialdeko lau gaztek osatutako taldea da: Beñat (urnietarra, abeslari eta bigarren kitarra), David (Groseko baxujolea), Eltxo (Amarako kitarra nagusia) eta Jokin (Parte Zaharreko bateria). Lau partaideen gustuak zeharo ezberdinak izatean, haien musika rocka, grungea, punka eta metalaren arteko nahasketa bat da.

Badira zortzi hilabete elkarrekin jotzen hasi zirenetik eta kontzertuak ere ematen hasiak dira Atabalan, Bukowskin, Ondarran... Urtarrilean Guardetxean jotzeko asmotan dira eta otsailan Mogambon.

Momentu honetan beraien lehenngo maketa ari dira grabatzen, abendu bukaeran amaitua egongo dena. Aipatzekoa da talde honetako partaide guztiak autodidaktak direla Eltxo izan ezik (musika eskolan klaseak jaso baitzituen) eta beraien kabuz ikasi dutela musika jotzen.



denbora pasak

izki zopa

Aurkitu giza eskubideak bermatzen ez diren 10 herrialderen izenak:

M	S	A	H	A	R	A	N	A	M
I	R	E	N	E	A	N	E	I	O
M	A	N	T	E	I	U	S	A	Z
A	K	P	N	G	R	E	I	I	A
N	A	T	E	L	D	V	T	R	N
S	R	R	I	R	I	R	H	A	B
A	I	O	I	L	U	S	M	N	I
A	O	B	O	O	I	B	A	O	K
R	N	B	N	A	A	I	S	R	E
A	N	I	X	T	X	I	M	A	B

horoskopoa

Aries: Meteorito batek lurra hondatuko du. Ariesak bakarrik salbatuko zarete!! Aaaaah!! Ariesez betetako lurraaaaaa!!

Tauro: Zergatik dauzkazu adar horiek hor gainean?

Geminis: Beti bezala, zure "doble personalidad" horrekin... Azkenean pasada txarren bat eragingo dizu.

Kantzer: Aaaaai! Karamarro, karamarro... beti atzeraka oinez... baietz estropozu egin koxkaren batekin!!!

Leo: Gaiztakeria ondo irtengo zitzaizula uste zenuen? Gurasoek egoera ekonomiko larrian utziko zaituzte, "paga" gabe.

Virgo: Adi zeruari! Kanean zabiltzala, lorontzi bat burura jausiko zaizu. Baina ez ezazu gehiegi begiratu goruntz, lepoko mina etorriko zaizu eta.

Libra: Txorkatila okertuko duzu. Baina medikuarenean zure bizitzako amodioa ezagutuko duzu. Lortuko al duzu "konkistatzea"?

Eskorpio: Errege bihurtuko zara!!! Baina jaiotza bateko errege!! Gabonak hasieratik bukaerara geldi-geldi pasa beharko dituzu.


Sagitario: Amodiozko gezia jaurti, haizeak buelta eman eta zuri sartuko zaizu bihotzean. Aaaaai!! Zure buruaz maiteminduta!!

Kaprikornio: Zure ikasketetan hobetzen hasiko zara. Egia esan, okerrago ezin zitekeen egin.

Akuario: Amodioan berri txarrak: mutil-lagunak utziko zaitu... Eskerrak Olentzero eta Erregeak datozen zure aurpegia alaitzeko...

Pizis: Kontuz!! Arrantzaleak gabonetan lanean aritzen dira jo eta ke. Baietz zu harrapatu!!

hitz gurutzatuak



- 1.) **XiRimiri** begirale pailazoena.
- 2.) "El novato"
- 3.) **XiRimiri**ko begirale txikiena eta dantzari finena.
- 4.) Bere buruko sarrerek McDonalderen M-a dirudite.
- 5.) **XiRimiri**ko erraldoia
- 6.) Hay un tenista en Euskadi que vale un montón: Buitrón.
- 7.) Bozgorailua berekin dakarren begiralea.
- 8.) Zuri-zuri eta hegan gure
- 9.) **XiRimiri**ko KUKURUtxoa

errezeta: berenjena pastela

OSAGAIK

Berenjenak: 1-2, tamainaren arabera

Danimarkako gazta lontxetan (pakete bat)

Hirina

Ogi xehetua

Arraultzak

Gatza

Tomatea

Olio

ELABORAZIOA

Berenjenak, erro daja finetan mozten dira. Hirinetik pasa eta olio oso beroan frijitzen dira. Sukaldeko paperarekin plater batean jartzen dira.

Aluminiozko molde bat gurinez eta ogi xehetuz igurtzi.

Bolean berenjena, gazta eta tomatea, kapetan jarri.

Azkenik arraultza batitu behar da eta moldean bota. Moldeko izkina libre utzi arraultzak toki guztetatik pasatzeko.

Gero labean sartu (180°) eta itxaron egin arte.